

EUSKAL KULTUR ERAGILETZARAKO ESTRATEGIAK HEZKUNTZAN UNIBERTSITATEKO MIKROKREDENTZIALA

GAIA	Hezkuntza
ECTS/ORDUAK	225 ORDU
EGUTEGIA	2026/01/12 - 2026/03/24
TOKIA	<u>Eskoriatza</u>
HIZKUNTZA	Euskara
MODALITATEA	Erdi-presentziala

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA



Ikastaro honen helburua da hezkuntza eragileei euskal kulturaren adarrak transmititzeko, sozializatzeko, joratzeko eta partekatzeko estrategiak eta gakoak eskaintzea, baita Ikastetxeko Kultur Proiektuak egikaritzeko urrats eta prozedura zenbait ezagutzea ere.

Azken hamarkadetan hizkuntz(ar)en didaktikaren inguruan urratsak egin dira, hainbat ikuspegitatik ekarpenak egin dira, baina gutxiago dira kulturaren didaktikaz jarduteko guneak, eta, are gutxiago kultur hezkuntzaren begirada hori kultura gutxituaren ikuspegitik joratu dutenak.

Bi norabide horietan ekarpena egin nahi da ikastaro honetan: kulturaren didaktika ardatz hartuta, euskal kulturaren inguruko egitasmo pedagogikoak eta planak diseinatzeko eta egikaritzeko prozedura eta ikuspegiak jorratuko dira, betiere kultura gutxitu baten hezkuntzaz dihardugula kontuan hartuta, hortaz, hezkuntza-testuinguru horren ezaugarri soziolinguistikoak eta soziokulturalak ere aintzat hartu behar direla jakitun.

NABARMENDUAK

- ✓ Eskuratuko dituzu konpetentziak euskal kulturaren adarrak transmititzeko, sozializatzeko eta jorratzeko.
- ✓ Ikasiko duzu euskal kulturaren inguruko egitasmo pedagogikoak eta planak diseinatzeko eta egikaritzeko.
- ✓ Modalitate hibridoa: aurrez aurreko 5 saio eta 4 saio sinkrono + online ikasketak.
- ✓ Hezkuntza arloko eragile guztiei zuzendutako ikastaroa: irakasleak, irakaslegaiak, hezitzaileak, dinamizatzaileak eta kudeatzaileak...

KONTAKTUA

HARREMANETARAKOPERTSONA

JULENE GORROTXATEGI

600 02 27 20

jdazkaritza.huhezi@mondragon.edu

HELBURUAK

- Euskal kultura ikasgelan lantzeko prozedura pedagogiko zenbait ezagutzea.
- Hezkuntza arautu zein ez-arautuko eragileek euskal kulturaren lanketa egiteko material eta egitasmo didaktikoak diseinatzeko gaitasuna garatzea.
- Hezkuntza arautu zein ez-arautuko eragileek ikasgelako, ikastetxe edo erakundeko kultur proiektuak diseinatzeko gaitasuna garatzea.

NORI ZUZENDUA

Hezkuntza eragileei: irakasle, irakaslegai, hezitzaile, dinamizatzaile eta kudeatzaileei (zuzendaritzako kideak, hizkuntza-proiektuetako arduradunak, berrikuntza-arduradunak...).

PROGRAMA

Ikastaroak 9 ECTSko lan-karga dauka, 225 ordu.

1. Euskal kultura hezkuntzagai ikasgelan (3 ECTS)

Euskal kultura ikasgelan lantzeak askotariko urratsak egitea dakar: kultur esperientziak bizitzeko espazioak sortzea, kultur testuen interpretazio kritikorako komunikazio-testuinguruak sortzea, mundu sinbolikoak

identifikatzeko eta birsortzeko urratsak egitea... Halako prozedura pedagogikoak landuko dira ikasgai honetan, euskal kulturaren ezagutza, interpretazioan, praktika komunitarioetan eta (bir)sorkuntza gaitzeko.

2. Euskal kultura ikastetxean zehar-lerro: kultur planak, kultur egitasmoak eta kultur protokoloak (3 ECTS)

Euskal kulturaren transmisioa, sozializazioa eta praktika komunitarioa ikasgelatik kanpoko espazioetan eta dinamiketan txertatzeko ekinbide eta jardunbide zenbait jorratuko dira ikasgai honetan.

3. Diseinu pedagogikoa edo Ikastetxeko Kultura Plana (3 ECTS)

Ikastetxeko edo ikasgelako dinamikan euskal kultura zehar-lerro izateko diseinu pedagogikoak edo kultura-planak diseinatzeko urratsak landuko dira, besteak beste, urrats hauek ardatz izango dituenak: sentsibilizazioa, diagnostika, esku-hartzearen aldiak...

METODOLOGIA

Aurrez aurreko saioak

- Adituen begiradak jasoko dira kultur adierazpideek hezkuntza izan dezakeen aplikazioari buruz.

Online bidezko saio sinkronoak eta online bidezko lanketa

- Kultur testuak transmititzeko, sozializatzeko, jorratzeko eta partekatze metodo logietan, estrategietan eta plangintzetan sakonduko dugu.

KOORDINAZIOA

Idurre Alonso Amezuza.

ONARPEN BALDINTZAK ETA PROZESUA

- Diplomatura edo graduatua izatea.
- Aurrez euskal kulturgintza alfabetatua izatea: Euskal kulturaren eragiletza unibertsitate masterra edo Euskal kultur alfabetatzea hezkuntza unibertsitateko mikrokredentziala eginda izatea.

JASOKO DEN TITULAZIOA

Mikrokredentzial hau eginda

- Euskal kultur eragiletzarako estrategiak hezkuntza, Unibertsitateko Mikrokredentzial akreditazio digitala.

Ikasten jarraituz gero

- Aurrez Euskal kultur alfabetatzea hezkuntzan unibertsitateko mikrokredentziala eginda izanez gero, **Euskal kulturaren eragiletza hezkuntzan Aritu diploma** ere jasoko da.

KOLABORATZAILEAK/ BABESLEAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Ikaselkar.



ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

PREZIOA

- Ikastaroaren prezioa, 1.200 €. **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren diru-laguntzarekin** (Berezko prezioa, 2.000 €).

INFORMAZIO GEHIAGO

HARREMANETARAKO PERTSONA

Julene Gorrotxategi

+34 600 027 020

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

<http://www.mondragon.edu/cursos/eu/euskal-kultur-eragiletzarako-estrategiak-hezkuntzan-unibertsitateko-mikrokredentziala>